

ZIHURKO Aseguru Artekaritzak **Zihurko Art** sail berezia sortu du hainbat negozio-arlotako espezialisten partaidetzarekin, enpresen, erakundeen eta partikularren ondare artistikoaren estaldurari loturiko aholkularitzan lan egiteko.

Entitate edo Partikular baten ondare artistikoa balio artistiko jakin bateko pieza edo atalez osatua egon daiteke, eta balio hori oso handia da kasu batzuetan.

Era honetako ondarea aseguratzeak tratamendu berezi eta espezializatua eskatzen du, objektu artistikoei behar duten estaldura egokia bermatzeko: margolanak, eskulturak, grabatuak... altzariak, bitxiak eta, oro har, bakarrak izateagatik balio berezia duten objektuak. Horiek guztiak ezin daitezke Eduki Komunaren partetzat hartu.

Ondare artistikoaren kasuan, ezbeharrak hainbat egoeratan gerta daitezke: ondarearen ohiko kokalekuan, aldi baterako erakusketa batera eramateko leku batetik bestera garraiatzen denean edo, besterik gabe, bitxien kasuan adibidez, etxetik kanpo erabiltzen direnean.

Zihurko Art, beraz, era honetako aholkularitza espezializatuan lan egiten duen unitate berezi bat da, eta elkarlanean dihardu arrisku mota hauen estalduran atzerrian nagusi diren aseguru-erakundeekin.

**Zernahi ere den aseguru beharreko Aktiboa,
Zihurko Art zuretzat ariko da lanean, arriskuak zorrotz aztertuz eta irtenbide egokienak bilatuz.**


Zer eskaintzen du Zihurko Art-ek?

Zihurko Art-ek bezero bakoitzak behar duen soluzio egokiena eskaintzen du:

- ☆ Aholkularitza arriskuen kudeaketan.
- ☆ Aseguru-programa espezifikoak, bezeroaren berezitasunen arabera.
- ☆ Aseguru artistikoan atzerrian nagusi diren erakundeekin negoziatutako produktu bereziak.
- ☆ Aholkularitza ezbeharren kudeaketan.
- ☆ Aldez aurreko balorazioak eta tasazioak.

Zihurko Art-en bezeroak:

- ☆ Administrazio Publikoak.
- ☆ Enpresak.
- ☆ Partikularrak.
- ☆ Arte Galeriak.
- ☆ Museoak.
- ☆ Erakusketa Aretoak.



ZIHURKO Aseguru Artekaritzak beren lurraldeetan nagusi diren bi finantza-entitateen partaidetza du: **Kutxa** eta **Vital Kutxa**. Bezeroen arretarako bulegoak Donostian eta Gasteizen daude.

ZIHURKO elkartea 1987an sortu zen, eta eskarmentu handia du entzute handiko entitateen eta Erakunde Publikoen ondarearen aseguruan.

Zihurko Art sortuz, beste urrats bat egin dugu gure bezeroen arretan, eta zerbitzu egokiena eskaini nahi diegu bildumazaletasunagatik, inbertsio modura edo familia-herentzia bidez ondare bat eskuratu eta hura babesteko tratu berezi eta espezializatua eskatzen duten bezeroei.



ZIHURKO Aseguru Artekaritza kalitate goreneko zerbitzuarekin lotu izan da beti, eta alde horretatik, Euskadiko lehen aseguru artekaritza izan da 2000. urtean bere prozesu guztientzat **AENOR** elkartearen ISO 9001 ziurtagiria lortzen.



Informazio gehiago:

Zihurko Art

Pilotegi bidea 2, 1. - 101. Buleg.
20018 Donostia

☎ 943 317322 - 📠 943 317879

Zabalgana etorbidea 1, 2. - 5. Buleg.
01015 Gasteiz

☎ 945 140521 - 📠 945 149061

Karlos III etorbidea 36
31003 Iruñea

☎ 635 52 1685

zihurko@zihurko.es